

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andresa Garate Mentxaka

*Ea, Bizkaia
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



1936an, gerra sasoian, Natxituko Olagorta auzoko Lauaxeta baserrian jaio eta bertan hazi eta bizi izandakoa. Baserria familiarena izan zen eta ezkondu zenean, osaba bati erosi zion. Ama Ereñokoa zuen eta aita Natxituko Aldebazter auzoko Gatagane baserrikoa. 4 neba-arrebatatik bera da gazteena. Gaztaro polita izan zuen arren, neba-arrebak ezkondu eta etxetik joan zirenean, baserrian lan asko egitea egokitu zitzaion. Familia aurrera eramateko, gurasoek soloko produktuak (garia, artoa...) eta behi-esnea saltzen zituzten. 11 urte zituelarik, aita hil eta amari lagundu behar izan zion baserriko lan guztietan. 16 urterekin, bere umetako lagunarekin hasi zuen harremana, eta bat Australian eta bestea Natxitun egon arren, kartaz mantendu zuten kontaktua. 23 urterekin, berarekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten.

Zintak

EAA-003

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu Agirre, Judith - Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-07-24
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gonzalez, Andere

EAA-004

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranburu Agirre, Judith - Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-07-24
- **Iraupena:** 21 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserriko beharrak bere gain

- **Erref:** EAA-003/009
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Amak baserriko lanak aurrera eramaten zituen. Andresak 16 urte zituela, etxetik joan zirenean neba-arrebak eta berari egokitu zitzaion baserriko lan guztiaren ardura.

2. Gazte sasoi ona

- **Erref:** EAA-003/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

14 urtera arte joan zen eskolara. Gazte denborako oroitzapen onak ditu. Goizean 6retan esnatu eta esnea eramaten zuen Elantxobera. Gero, hamaiketako Merrun egiten zuen eta ostean, bordatzen ikasten joaten zen. Arratsaldean aldiz, josten ikasten zuen.

3. Etxez-etxe esnea saltzen

- **Erref:** EAA-003/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:05:33. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

16 urte zituela, amari esnea saltzen laguntzen hasi zen. Eskuz erazten zituzten behiak eta kantinetan eramaten zuten esnea Elantxobera arte. 6-7 behi izaten zituzten baserrian.

4. Señorita Aurora irakasle zuzena

- **Erref:** EAA-003/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Señorita Aurora oso irakasle zuzena zen. Txarto portatuz gero edo euskaraz eginez gero zigortu egiten zituen. Ez du ulertzen zergatik ez zieten euskaraz hitz egiten uzten.

5. Eskolan liburu bi

- **Erref:** EAA-003/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan gai guztiak ikasten zituzten, euskara izan ezik. Liburu bi eduki zituzten eurek: bata "Historia sagrada" eta bestea bestelako ikasgaiarentzat. Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren eskolan.

6. Jaunartzeak etxean ospatzen ziren

- **Erref:** EAA-003/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:21. **Bukatu:** 00:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Lehenengo Jaunartzea egiten zutenean, etxean egiten zuten ospakizun bazkaria. Abadea ere gonbidatzen zuten. Pazkotan egiten zuten komunioa.

7. Ezkontza eguneko jantziak

- **Erref:** EAA-003/019
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:19:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Natxitan bertan egin zuten ezkontzako bazkaria. Jantzi beltza eraman zuen Andresak, modista batek egin, eta mantelina buruan.

8. Gidabaimena

- **Erref:** EAA-003/020
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Orain berrogeita bost bat urte, baserrirako bidea egiten ibili zela kotxe istripua eduki zuen Andresak. Orduan gidabaimen barik ibiltzen zen. Istripua eta gero, jarraian atera zuen gidabaimena.</p>

9. Gaztetako behar gogorrak

- **Erref:** EAA-003/021
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserría » Baserriko lanak

Laburpena:

Denetariko beharrak egin behar izan ditu Andresak; esaterako, osabari basoan azpigarriak moztzen lagundu. Behar gogorrak izaten ziren ordukoak. Hala ere, ondo pasatzen ere jakiten zuten: erromerietan. Inguruko herrietara joaten ziren, urrunen Lekeitiora eta Ispasterrera.

10. Karameluak dantza egitearen truke

- **Erref:** EAA-003/022
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:24:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Domeka guztietan gramola jartzen zuten Natxituako plazan dantzan egiteko. Inguruetako jende asko batzen zen bertan. Mutilek karameluak ematen zizkieten eurekin dantza egiten zutenean. Jaietan barkilloduna etortzen zen Natxituara eta haretzek oparitzen zizkieten mutilek. Komedianteak ere etortzen ziren jaietan.</p>

Transkripzioa

- Bueno... Hasten zan musiki Natxittun... gramolie... hi, geratu be ez!
- Natxittun plazan gramolie domeka guztitan eoten zan?
- Domeka guztixetan eoten zan. Ta jentia asko etortzen zan Natxitture kanpotik.
- Ingurutik?
- Ingurutatik.
- Baiña mutillik jantzan eitteko bazegon?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Karameluak [eskatzen geuntzezan]. Ta poltsillu karmeloz beterik beti.
- Mutilleri karmeluk eskatzen?
- Klaro! "Jantzan eitti gure bozue, [ipiñi] karmeluk". Tragorik eta halakorik ez, baiña karmeluk bai.
- A bai, e?
- Karmeluk. Karmeluk eta antxiñe ibiltten zan e... jaixetan e... ha... erroskak ez, baiña... zer zin harek? Holan "rrrr" emon e...
- A! barkilluek.

- Barkilluk. Ta barkilluk, ostontzin, barkilluk. Jaixek bazin, barkilluk.
 - Barkilleruak [...].
 - "Ra" emon ta barkilluk ataten ebazena.
 - Ta etorten zan Natxittuko plazara?
 - Bai, bai, bai, bai. Natxittun eoten zan.
 - A, beittu.
 - Ya, bai, bai, bai, bai. Natxittun. Ta baite eoten zin Natxittun e... etorten zin lehen e... honek e... zer di horrek?
 - [...]?
 - Ez, e...
 - Komediantik.
 - Komediantik. Komediantik be bai etorten zin. Ta harek be musikie ipintten ebenin, dale guk! Es que yo he sido... Ixan naz alegria alderdi batetik. Me ha gustau ya... kantie ta jantzie... asko gustau ixan [jat]. Txarto edo ondo, baiña ein.
 - Entzun, Andresa, ta zure gixonak jakin dau jantzan?
 - Bueno, bueno ba... Gixon difuntuk... tire. Tire. Baiña honek e... Askorik ez.
 - Disfrutateko beste bai.
 - Bai, bai, bai, bai, bai. Ta hau e... b... tire. Tire.

11. Inguruko gazteak Natxituako gramolara

- **Erref:** EAA-003/024
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:26:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mutilei kobratu egiten zieten dantza egitearren. Ean ere egoten zen gramola, baina inguruko jende gehiena Natxituara joaten zen. Balsa, jota eta tangoa moduak dantzatzen zituzten.

12. Gari ereitea, batzea eta jotzea

- **Erref:** EAA-003/032
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:41:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia San Andres inguruan ereiten zuten: haziak bota eta burdina-arean pasatu ganaduekin. Maiatzean oloa atera behar izaten zen. Gero, garia mozten zuten; hasieran igitaiarekin eta gero makinarekin. Metak egiten zituzten gariarekin. Hilabeteen edo sikatzen utzi behar izaten ziren eta gero jo.

13. Estraperloa eramaten harrapatu

- **Erref:** EAA-003/034
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:44. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra sasoian, garia entregatu egin behar izaten zuten. Estraperlo asko zegoen orduan. Behin, guardia zibilek neba harrapatu zuten estraperloa eramaten. Aitak kuartelean eman behar izan zituen egun batzuk eta etxea arakatu zieten. Handik eta gutxira hil zen aita.

14. Ogia egiten

- **Erref:** EAA-003/040
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Ez zuten goserik pasatu gerra ostean. Ogia etxeko labean egiten zuten eta ortuko jeneroak batzen zituzten. Ogia astean behin egiten zuten. Azpiran ("artesano") irina eta altxagarria ("lebadurie") urarekin nahasten zituzten. Gero, estalita uzten zute oreka, altxatu arte, eta labera sartzen zuten.

15. Familia sarri batzen zen

- **Erref:** EAA-003/042
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak

Laburpena:

Txerri bodarako familia batzen zen. Gainera, domeka gauetan Elantxobeko familia etortzen zitzaion afaltzera. Orain baino gehiago batzen ziren lehen.

16. Txerria hiltzen

- **Erref:** EAA-003/044
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerria hiltzeko osaba etortzen zitzaien, matarifea. Gantxoa sartu eta txerria odolustu egiten zuten. Gero erre egin behar izaten zen, garbitu eta eskegita utzi ilutzean txikitzeko. Gero, txorizoak eta odolosteak egiten zituzten. Txerria hil ostean berakatz-zopa eta gibela jaten zuten.

17. Txerrikiak gatzetan gorde

- **Erref:** EAA-003/045
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txerrikiak gatzetan gordetzen zituzten. Jateko, bertatik atera eta gatzak kentzen zieten. Hala ere, gazi geratzen ziren gehienetan. Txerria hiltzen zuten egunean, txerri-okela eta mortzilak prestatzen zituzten afaltzeko. Ostean, kafea eta kopa hartzen zuten gizonek. Emakumeek, zeozer hartzekotan, anisa hartzen zuten.

18. Gabonetan familia batzen zen

- **Erref:** EAA-003/048
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:02:16. **Bukatu:** 01:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erligioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabon egunean beti etorri izan zaio familia etxera. Bisigua eta papardoa prestatzen zuten ordurako. Bakailao errea olioarekin ere asko gustatzen zitzairen, soloan beharrean zeudenean jateko. Ardoa botatik edaten zuten baserriko beharretan zeudenean. Bakailao errea zelan prestatzen den azaltzen du.

19. Zartaginekoa txerrikiekin

- **Erref:** EAA-003/049
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:05:35. **Bukatu:** 01:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Zartaginekoa sarri jaten zuten, txerrikiekin eta arrautzarekin. Txerrikiei gatzak kentzeko esnetan sartzen zituzten.

20. Bidea auzolanean egin zuten

- **Erref:** EAA-003/050
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:06:28. **Bukatu:** 01:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Gabonetan kantatzeko ohitura eduki izan dute beti eta baita kartetan egiteko ere. Briskan egiten zuten eurek. Gazteak zirenean argirik eta biderik ere ez zen egon baserrian. Auzoak batuta egin zuten bidea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com